


iRRiA

IVERRON JAEUNAK



140. zk./6,50 €
2024ko abendua
GAUA
www.irria.eus

IRRIA

PUPU^{ETA} LORE

Uxue Alberdi • Bikain DG

Klik! Argiak itzali dira. Dena ilun dago. Lotarako ordua da. Klik!

Zerekin egingo dute amets Pupun eta Lore? Eta, nora ote doaz gauetz Pirritx, Porrotx eta Marimotots? Zergatik gaua du nahiago Patakonek? Norekin topo egin dute Kattak eta Sarek basoan?

Eta zuk? Zer egiten duzu zuk gauetz?

Klik!

Partekatu nahi al dituzu aldizkariarekin egiten dituzun marrazkiak eta eskulanak?

Bidali hona: irakurlearentxokoa@irria.eus

IRRIA aldizkaria Irrien Lagunak-en hilabetekaria

140. zenbakia. 2024ko abendua

Argitaratzailea: Irrien Lagunak S.L.

Egoitza: Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain, Gipuzkoa

Posta elektronikoa: irria@irrienlagunak.eus

Lege Gordailua: SS-1381-2010 / ISSN: 2172-5519

Koordinazioa: Agurtzane Ortiz Lopetegi, Juanma Aramendi

Diseinua eta maketazioa: Juanma Aramendi, Olatz Goikouria Miñaur

Bezero arreta: (0034) 943 30 43 32

Inprimategia: Leitzaran Grafikak

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Uxue Alberdi, Bikain Diseinu Grafikoa (Julen Tokero, Cesar Gonzalez, Iñaki Iturriza), Mikel Valverde, Lotura Films (Jose Angel Lopetegi, Aitor Etxebeste, Imanol Zinkunegi), Ane Labaka, Xabier Etxeberria, Ana Galarraga (Elhuyar Fundazioa), Ane Arzelus, Joseba Sarrionandia, Irrimarra, Ikaselkar hezkuntza argitaletxea, Miren Agur Meabe, Amaia Ayerra, Nagore Irazustabarrena Azala: Irrimarra

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua




ETXEAK TEILATU BAT
ETA GAUAK LAU ERTZ;
ILARGIAK NOREKIN
EGITEN DU AMETS?

GAUAREN LINTERNA DA
ILARGI BETA;
NOLAKOA OTE DA
IZARREN NEKEA?



Ardi eta Behi

Gidoia eta marrazkiak: Mikel Valverde



BEGIRA BEGIRA...

Lotura Films

BA AL ZENEKIEN BADIRELA ANIMALIAK
EGUNEZ LO EGITEN DUTENAK,
ETA GAUEZ ESNA DAUDENAK?
EA TOPATZEN DITUZUN...



BASURDEA



AZERIA



SAGUZARRA



HONTZA



OTSOA



LEPAZURIA



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

GAMUSINOEN GAUA

Ane Labaka • Lotura Films



Ilundu da zerua eta, ilargi betea gidari, herriko plazan elkartu dira Pirritx, Porrotx, Marimotots eta lagunak.

Hotz egiten duen arren, inork ez du urteroko zita galdu nahi.



Bat-batean, andre zahar bat agertu da biribilaren erdira eta haurrak isildu direnean, misterioz betetako ahotsez ekin dio kontakizunari:

–Ondo dakizuenez, gamusinoak urtean behin agertzen dira, ilargi betearekin. Izaki misteriotsuak dira, inork ez baitaki zehazki zein forma eta tamaina duten...

Ekarri al dituzue eltzeak eta zartaginak? Zarata egin beharko dugu gamusinoak uxatzeko eta, zuetako inork haietakoren baten begi gorriak topatzen baditu, kontuz! Ez dadila hiru segundo baino gehiagoz begietara begira egon, bestela bera ere gamusino bilakatuko da eta.



Zuhaitzak itzal bilakatu dira basoan, eta itzalak mamu. Porrotxen bihotza lehertzeko zorian ari da taup, taup eta taup.

–Aaaaaa! –egin du garrasi halako batean.

Enbor zati bat puskatu zaio bere hankapean.



Aurrera egin ahala, gero eta ilunagoa egin da basoa. Hala ere, Pirritxen linternak norbait argiztatu du sasien artean:

–Kontuz! Ez begiratu begietara!

Miau ozen bat entzun da jarraian, eta arnasa baretu zaio.



Ohartzerako, iritsi da egunsentia eta berriro ere herriko plazan egin dute topo lagunek, txokolate beroa hartzeko gogoz. “Guk ez dugu gamusinorik topatu” kontatu du batek, “nik uste dut bat ikusi dudala baina ziztu bizian egin du alde” besteak. Pirritxi eta Porrotxi zuzendu zaie hirugarrena:


–Aizue, eta Marimo? Non sartu da?

Pirritxi eta Porrotxi larritu egin dira kolpetik, eta basorantz abiatu dira. Orduantxe, baina, Marimotots agertu da plazara. Musuka hartu du Porrotxek:

–Zer susto itzela! Uste genuen gamusino bihurtu zinela!



OSATU SUDOKUA. MARRAZKI BERA BEHIN BAKARRIK AGER DAITEKE LERRO ETA ZUTABE BAKOITZEAN, BAI ETA LAU LAUKITXOZ OSATUTAKO KARRATU HANDI BAKOITZEAN ERE.



AURKITUKO AL ZUEN MARIMOTOTSEK GAMUSINORIK?
ETA TOPATZEN DUZUN ZUK ALDIZKARI HONEN ORRIETAN...

LAGUNDU IZAR TXIKIARI BERE BIDAIA, 1ETIK 16RA ZENBAKIAK LOTUZ.



PATAKON

GAUAREN BABESEAN

Xabier Etxeberria • Lotura Films



GAUTXORIAK

Ana Galarraga • Ane Arzelus

Gautxoriak: halaxe deitzen zaie gauz pizten direnei eta haren iluntasuna eta misterioa gustuko dituztenei.

Badira benetako gautxoriak: hontzak. Familia handia dira, eta tartean daude urubia, mozoloa, hontz handia... Denek dituzte begi biribil handiak, eta ehiztari isilak eta trebeak dira.

Saguzarrak ere gautarrak dira, eta, hontzek bezala hegan egiten dute, baina ez dira hegaziak. Gu bezala, ugaztunak dira. Are gehiago: ugaztun hegalari bakarrak dira. Eta hain daude ondo egokituta iluntasunera, ez dute begien beharrik ikusteko. Soinuaren oihartzunaren bidez dakite nondik nora dabiltzan eta zer duten inguruan.

Gu egunekoak gara, oro har, baina badira pertsona gautarrak ere. Haiei asko kostatzen zaie goizetan jaikitzea, eta gaua iritsitakoan, aldiz, ez dute logurarik izaten.

ZU ZER ZARA: EGUNEKOA ALA GAUTXORIA?



EUSKARAZ IKASI, EUSKARAZ BIZI

Zuen seme-alabek euskara ikasteko modurik onena da D ereduari matriculatuzea. Izan ere, horrek tresna egokiak emango dizkio euskara bizitzako arlo guztietan erabili ahal izateko. Garrantzitsua da, ordea, bide horrek jarraipena izatea etxean. Umeei argi izan behar dute euskara ez dela eskolan edota kalean entzuten den zerbait, etxean ere badaukala bere lekua.

La mejor manera de que vuestros hijos e hijas aprendan euskera es matricularlos en el modelo D. Esto garantiza que pueden aprender bien el euskera en todos los ámbitos de su vida. No es menos importante que ese camino continúe en casa, los niños y niñas tienen que tener claro que el euskera no es algo que se utiliza en la escuela o en la calle y que en sus hogares también tiene su sitio.



balorazio-orria

ADITUEN IRITZIA

Hizkuntza jakin baten irakaskuntzak arrakasta izateko ezinbestekoa da eskola komunitate osoaren konpromisoa: familiak, irakasleak eta ikasleak. Bigarren hizkuntza batean murgiltzeko esperientzia arrakastatsua izango da komunitate osoa motibatuta baldin badago.

Eskolaurrean hizkuntza-murgiltzea egokia bada ikasleak gaitasuna lortuko du euskara behar bezala erabiltzeko lehen zikloan. Hizkuntza-murgiltzea eskolaurrean egiteak aurrerabide eta erraztasun handiagoa ekarriko du, gero, eskola eskakizunak handitzen doazen neurrian, hizkuntza hori ikasgai huts izan beharrean ikas-tresna moduan erabili ahal izateko.


Itziar Idiazabal (Haur euskaldunak eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntza).

Una condición indispensable para que la enseñanza de una lengua tenga éxito es, sin duda, el compromiso de toda la comunidad educativa (familias, profesorado, alumnado). La experiencia de la inmersión en una segunda lengua será exitosa cuando toda la comunidad educativa esté motivada.

Si en preescolar la inmersión lingüística es acertada, el alumnado conseguirá la capacidad infantil de poder utilizar el euskera de una forma funcional en el primer ciclo. El hecho de realizar la inmersión en preescolar da mayor progreso y facilidad a medida que la exigencia de la educación infantil crece para poder pasar de ser una mera asignatura a una forma de aprender.

Itziar Idiazabal (Niños/niñas euskaldunes y la enseñanza de lenguas extranjeras).

OSATU MARRAZKIA PUNTUAK LOTUZ.





ITZALALDIA

Joseba Sarrionandia • Irrimarra

Gaua da, ohera sartzeko gaude, eta, derrepentean, bonbilak itzali dira. Argi indarra eten da. Elektrizitatea etxeraino ekartzen digun kableren bat hondatuko zen, eta ilunetan geratu gara. Ez dut ezer ikusten, bat-batean dena ezabatu balitz bezala.



–Beldurra duzu? –galdetu dit ahizpak.
–Apur bat... –esan diot, konturatu orduko, beldur apur bat ez, beldur handia dudala. Beldurraren beldurrez, neure bihotzaren taupadak ere dilin-dalan sentitzen ditut...



Bel-beltza da dena.
–Goazen balkoira –dio ahizpak– ea argirik ikusten den.
Itsumustuan irten gara balkoira. Ilun daude ate-leiho guztiak. Patioa ere beltz dago. Eraikuntzen arteko zeru zati karratuak bakarrik du klartasunen bat.
–Egunak begientzat egiten dira, baina gaua belarrientzat... –esan dit ahizpak.
–Bai? Ba nik ez dut ezer entzuten.
–Munduaren isiltasuna entzungo duzu.

Munduaren isiltasuna entzun, bai zera! Gehiago ez beldurtzeko, solasean jarraitzen dugu:

–Izarrez beterik dago zerua –diot nik eraikuntzen arteko espazio laukian izar txiki batzuk ikusita.

–Iluntasunik gabe ez ginateke ohartuko izarrez...

–dio ahizpak–. Milaka eguzki dira urrun...

–Iluntasuna behar da argiaren balioaz konturatzeko –dio ahizpak.

–Ez dakit –diot nik, ilunetan beldurrez oraindik.



BEGIRATU ZUK ERE LEIHOTIK, ETA MARRAZTU IKUSTEN DUZUNA.



ZER EGITEN DUGU EGUNEZ? ETA GAUEZ?
LOTU IRUDI BAKOITZA EGUZKIAREKIN EDO ILARGIAREKIN.



ETA ZUK?

KATTA ETA LAGUNAK

IZARRA

MIREN AGUR MEABE • LOTURA FILMS



HAU MARKA! KATTARI EGURRA AMAITU ZAIO.

EZIN DUGU GAUA PASATU...

...SURIK GABE!

BILA ATERA BEHAR, NEGU GORRIAN.

ELURRA FIN-FIN, IBILI BEHAR ARIN!
ELURRA MARA-MARA, EGURRA GANBARARA!

ADAR BAT ETA
ADAR BI...

...ZUK EZ JO
ADARRIK NIRI!

ZURI-ZURIA BASOA
ETA PETRUXKAREN TXANOA.

ADARRAK BATU ETA BATU, LAKURAINO HELDU DIRA.

ZER DA...

...HORI?

ETA, BAT-BATEAN, EZ DA, BA, IZAR BAT ERORI!

KATTAK EZ DU ZALANTZARIK:
IZARRA SALBATUKO DU, BAI ALA BAI.

IZARTXOA...

...ZER GERTATU ZAIZU?

IZARRAK EZ DAKI BERBETAN,
BAINA KEINUKA BAI, BENETAN.

HAN GOIKO MUINOAN, ALDAPA AMAITZEN DEN TOKIAN...

ADOS, ADOS...

...ERAMANGO ZAITUGU.

... KOBAZULO BAT AGERI DA.

EGURRA BESOAN, IBILI BASOAN,
HELDU DIRA GORA, LEIZEAREN ONDORA.

KAIXO... GABON...

...AIZUE... BARKATU...

IZARRAK SALTO EGIN DU GAINERA.
KATTAK KUKU EGIN DU BARRURA.

ETA IZARRAREN ARGIRA, LAGUN GUZTIAK AGERTU DIRA...


GAUEKO IZAR
ARGITSUENA...

PIZTEAREKIN
BATERA...


HAURTXO EDER BAT
ETORRI ZAIGU...

BART ARRATSEAN
BASORA...

...KANTU-KANTUAN, OPARIAK ESKUAN.



Bilatu 7 desberdintasunak





MARTEN ITZALI EGIN DIRA TELEBISTAK... NORAINO HELTZEN DIRA ZERUKO TXIRRISTAK?

BURUA ERORI ZAIT AMETSEN ELTZEAN; NORA JOATEN DA GAUA EGUNA HELTZEAN?



NORA JOATEN DA GAUA EGUNA HELTZEAN?

Euskal Herrian asko gara euskararen aldeko konpromisoa dugunok. Gure erronka da herritar guztiok euskara ikastea eta ahalik eta gehien erabiltzea. Horretarako, garrantzitsua da umeek txikitatik lotura estua izatea euskararekin. Etxean euskara jaso dutenak zein kanpoan ikasi dutenak euskaraz entzun nahiko genituzke, berdin-berdin. Hori lortzeko ikasketak euskaraz egitea gomendatzen dugu. Beraz, zuen seme-alabak D ereduari matrikulatzera animatzen zaituztegu.

Eskolako ikasketetan bakarrik ez, garrantzitsua da aisialdian eta gozatzeko espazioetan ere euskarak lekua izatea. Horren adibide bat da esku artean duzuen aldizkari hau. Umeentzat eta familientzat egindako hilabetekaria da, eta proposamen dibertigarriak lantzeaz gain aukera emango digu umeek irakurtzeko zaletasuna hartzeko, balio jakin batzuetan hezteko, euskara hobetzeko, eta askoz gehiagorako.

Gozatu ezazu esku artean duzun aldizkariarekin!!

Somos muchas las personas que en Euskal Herria tenemos un compromiso firme con el euskera. Nuestro reto es que toda la ciudadanía aprendamos la lengua vasca y nos expresemos a través de ella el mayor número de veces posible. En este sentido, es importante que desde los primeros años de la infancia se establezca un vínculo sólido con el euskera. Queremos que tanto las personas que han adquirido el euskera desde casa, como las que no, lo hablen por igual; por eso, recomendamos la enseñanza en esta lengua. Para ello, os animamos a matricular a vuestras hijas e hijos en el modelo D.

Además de en las tareas escolares, también es importante darle un lugar al euskera en los momentos de ocio y disfrute. Esta revista es un ejemplo de ello. Se publica mensualmente y está dirigida tanto a niñas y niños como a sus familias. Aquí, además de propuestas divertidas, encontraremos también actividades donde adquieran el gusto por la lectura, para que crezcan consolidando determinados valores, para reforzar el euskera y otras muchas opciones.

Deseamos que disfrutéis leyendo este ejemplar!

